

# EUSKARAK, ETXEALDIRIK EZ

Euskararen erabilerari bultzada ematea, norbanakoen konpromisotik eta inguruko talde eta eragileetan eragiteko. Horiek dira gaur hasiko den bigarren Euskaraldiaren ardatz eta erronkak // I-XVI

ALAINEBARANBURU

## BLACK FRIDAY

# %20

ko **DESKONTUA**  
produktu guztietan

**+ MONTURA DOAN** zure betaurreko graduatuetan

2020ko azaroaren 30era arte. Baliozgarria. Kontsumatzaileentzako zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

### DONOSTIA

Jose M<sup>a</sup> Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17  
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49




### ERRETERIA

Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11

### IRUN

C.C. Mendibil • Tel.: 943 63 99 01

## MULTIOPTICAS

[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)   

B.P.S. 175/115 I.G.



Euskaraldiaren agertokia ariguneek, ahobiziek eta belarriprestek beteko dute gaurtik hasita abenduaren 4ra arte. OLAIA GERENDIAIN

*Gaurtik abian da bigarren Euskaraldia. Norbanakoen konpromisotik abiatuta, entitateetan indar berezia jarri nahi izan da euskararen erabilera era kolektiboan indartzeko egitasmoan.*

# Txapa jarri, eta eman

## -URKO ETXEBESTE

**P**ello Jauregik, besteak beste Kuadrillategi edo Euskaraldia bezalako egitasmoen ideologoak, aldundiaren Abbadia Saria jaso behar zuela jakin zuenean esan zuen sariaren atzean ez zegoela hura bakarrik, jende asko zegoela euskararen normalizazioaren alde egindako urratsak sarritzen dituen aitortzaren oinarrian. Harekin egitasmoak garatzen izan dituenak izan zituen gogoa irakasle eta ikerlari antxotarrak, baina batez ere, euskararen erabilerearen aldeko urrats kolektiboak eman dituzten guztiak, herri guztietakoak, eragile guztietakoak, norbanako den-denak. Gazteak, helduak eta adinekoak. Mingainek ez dute adinik

euskaraz hitz egiterakoan, ezta belarriek entzuterakoan ere.

Euskararen erabilera, norbanakoen konpromisotik hasita, kolektiboen beharra du. Aurten go Euskaraldiak hor jarri du azpimarra: entitateetan. Elkartek, kirol taldeak, enpresak, erakundeak... Milaka dira horietan egunerokoan lanean ari direnak, eta hizkuntza ohituretan eragin nahi bada, haietan ere aurrera urratsak egiteko garaia da.

Gaur hasi eta abenduaren 4ra arte luzatuko da bigarren Euskaraldia, 2020koa. Egoera zinez berezian ekingo diote Oarsoaldean eta Bidasoan milaka lagunak eta ehunka entitatek egitasmoari. Ahobiziak, belarriprestak eta ariguneak, horiek jokalaria. Eta joko zelaiak, entitateen egoitzak, kaleak, gunek publikoak eta euskaraz hitz egiteko eta entzuteko baliagarri den edozein ere-

## **Euskaraldiaren orrialde berezia egin du HITZAK**

**OARSO BIDASOKO HITZAKO langileek arigunea osatu dute. Baina hori ez da Euskaraldiari hedabideak egingo dion ekarpen berezi bakarra. Oarsoaldeko eta Bidasoko webguneetan (oarsoaldea.hitza.eus eta bidasoa.hitza.eus) orrialdeak sortu ditu, Euskaraldiak iraun bitartean (eta aurretik) sortuko diren eduki guztiak txakun eta era erakargarrian batzeko. Orrialde horietan, berrien jarrioz gain, egitarauak, irudi galeriak eta herriz herrirako entitateen zerrendak ikus daitezke. Gainera, Euskaraldiari lotutako Egunean Behin jokoaren taldea sortu du HITZAK, sari mamitsuekin.**

mu. Berezitasuna COVID-19ak emango dio dinamika kolektiboari. Euskaraz ere hitz egin daiteke koronabirusaz. Dena dela, birusak zeharo baldintzatu du Euskaraldiarekin lotuta herriz herri egin behar ziren hainbat ekitaldi.

### **Antolatu dira**

Oarsoaldeko eta Bidasoko herri guztietan sortu dira Euskaraldiari hauspoa emateko batzordeak. Hilabeteak daramate lanean egitasmoarekin ahalik eta herritar gehienek bat egin dezaten, izan norbanako edo entitate. 2018koan bezala, ahobizi edo belarriprest txapak soinean jantzita eramango dituztenak milaka izango dira, eta entitateen zerrendak ere oso aberatsak dira.

Hamabost egunean zehar euskaraz komunikatzeko, eta euskaraz esaten dena entzuteko

testuingurua oso aproposa izango da, askok egutegian markatuta dituztelako egitasmo kolektiboaren hasiera eta bukaera egunak.

Baina abenduaren 5a iritsiko da. 2018ko Euskaraldian egindako ikerketa batek esaten zuen orduko hartan euskararen erabilera indizeetan nabaritu egin zela egitasmoaren indarra, eta horrek, ziurrenik, ondorenean ere hainbat inertzia aldatzeko balio izan zuela. Hor dago erronka: Euskaraldia bitartean bai, baina ondorenean ere hamabost egin hauetan sortuko dena mantentzea, ez dadila ihartu.

Jarraian datozen hamahiru orrialdeetan HITZA-k bildu nahi izan du Euskaraldiak ilusio erreala sortu duela herritarren artean, prest daudela euskararen erabilereari bultzada emateko.

**uetxebeste@hitza.eus**

# 385

## EUSKARALDIKO ARIGUNEAK SORTU DITUZTEN ENTITATEAK OARSOALDEAN ETA BIDASOAN

Oarsoaldeko eta Bidasoko entitateek ganoraz erantzun diote tokian tokiko batzordeek egindako deia. Ariguneak dira Euskaraldiaren bigarren ekitaldian berritasuna, eta orotara, bi eskualdeetako sei herrien artean 385 izan dira ariguneak sortzea erabaki duten eragileak. Eragile batek, arigune bat baino gehiago izan ditzake. Hau da, arigune gehiago daude entitateak baino.

**Herrika.** Irun da arigune izateko entitate gehien jaso dituen herria, 92 daude. Oiartzunen, berriz, 88k eman dute izena, eta Pasaian 76k. Kopuruan hurrengoa Hondarribia da, bertako 55 eragilek erabaki dutelako ariguneen egitasmoarekin bat egitea. Haien atzetik doaz Errenteria-Orereta (44) eta Lezo (30).

# Euskaraldiko erakusleihu ederrenak sarituko dituzte Oarsoaldean

## -U. ETXEBESTE

Errenteriako, Lezoko, Oiartzuneko eta Pasaiaiko udalek, Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren bidez, Euskaraldia eta merkataritza uztartzen dituen lehiaketan parte hartzea animatu dituzte Oarsoaldeko merkatariek: Euskaraldiko Euskarate Lehiaketa. Hala nahi duten Oarsoaldeko merkataritza, ostalaritza (ahal dutenek) eta gainerako saltoki guztiek hartu ahal izango dute parte eskaparate lehiaketa horretan. *Euskaraldia* hitzak nahitaz egon beharko du bistan apaintzen den saltoki edo erakuslehuoan, baina hortik aurrera norberaren sormenaren eta irudimenaren arabera geratuko da.

Euskaraldiak iraun bitartean egon beharko dute apainduta erakuslehuoek (azaroaren 20tik abenduaren 4ra); eskaparaterik ez izan arren, establezimendua

bera, edo haren zatiren bat apainduz ere parte hartu ahal izango da lehiaketan. Baina beti Euskaraldia edota euskara aitza edo gai hartuta apaindu beharko dituzte dendariak euren guneak. Euskarazko kolorea emango diete herriei erakuslehuoek, eta euskararen erabilera areagotzeko iniziatiba kolektibo indartzen lagunduko dute.

Lehiaketan parte hartu nahi duten establezimenduek Oarsoarrak-en webgunearen bitartez (*oarsoarrak.eus*) eman behar dute izena. Horiek ikustera joango dira izendatutako epaimahaiak kideak, Euskaraldiak irauten duen bitartean. Epaimahaiak abenduaren 15ean jakinaraziko du zein den eskualdeko irabazlea, nahiz herri bakoitzekoa.

Eskualdeko sari nagusiaren jabeak 400 euroko bonua jasoko du bere bezeroen artean bana-

tzeko. Herri bakoitzeko irabazleak, berriz, 200 eurokoa. Beraz, 1.200 euro banatuko dituzte sarrietan.

## Egitasmo zabalagoa

Euskarate lehiaketa Euskaraldiari loturik dago. Harremandu, era berean, urtero, urteko 365 egunetan, Oarsoaldeko lau udalek merkataritza eta ostalaritza alorrean euskararen erabilera sustatzeko gauzatzen duten Euskara Oarsoaldeko Komertziora egitasmoarekin. Aurten *Prezio berean, euskarazi* izena hartu du jarduerak.

Antolatzaileek adierazi dute badakitela garai zaila dela merkataritza eta ostalarientzat. Uste dute lehiaketaren bitartez, Euskaraldiari bultzada emateaz gain, bizia emango zaiela herriei, beraz, herritarrek tokiko dendetan kontsumitzeari ere bai.

# 7.723

## AHOBIZI EDO BELARRIPREST IZATEKO IZENA EMAN DUTENAK, OARSO BIDASOAN

2018ko edizioan bezala, aho-biziak eta belarriprestak izango dira Euskaraldiaren motorretakoak datozen hamabost egunetan. Oarsoaldeko eta Bidasoko herrietan rol horiek betetzeko 7.723 norbanakok zuten izena emanda astearte goizean.

**Herrika.** Irunek bildu ditu, kopuruan, aho-bizi eta belarriprest gehien asteartera arte, 1.696. Kopuruan jarraian doaz Pasaia 1.409ekin eta Errenteria-Orereta 1.400ekin. Horien ondotik hondarribiarrak (1.261) eta oiartzuarrak (1.250). Lezon 707k eman dute izena. Biztanle kopuru osoaren arabera, Oiartzun eta Lezo dira izen ematean ehuneko altuena duten herriak: oiartzuarrak %12,5ek eramango du aho-bizi edo belarriprest txapa, eta lezoarren artean %11,7 dira Euskaraldiarekin bat egin dutenak.

# Tknika

Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatu Zentroa  
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi  
Basque VET Applied Research Centre



## Tknikan eta Lanbide Heziketan euskaraz, gehiago, gehiagorekin, gehiagotan.

Zamalbide auzoa • 943 08 29 00 • Errenteria  
[www.tknika.eus](http://www.tknika.eus)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA GAILA Lanketa Heziketa: Sefunortzidatza DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Viceconsejería de Formación Profesional

Fp  
EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA

-ALAINA ARANBURU

**G**aur egungo Euskal Herriko egoera sozio ekonomikoa gordina da, aisia eta kirola mugatuta daudelako, edo osasun zerbitzuak gainezka daudelako, besteak beste.

Egoera honek Euskaraldiari mugak jartzen dizkion arren, rolak bete ahal izatea posible dela uste du Blagan Euskara Elkarte-ko eta Euskaraldiko Herri Batzordeko kide Mikel Maiozek, batez ere aurtengo berritasun diren ariguneak sortu direlako. Ariguneak Euskaraldia gauzatzeko arnaguneak izango direlako, nolabait. Era honetan, hizkuntza ohituretan eragin nahi da Hondarribian ere bai.

Euskararen egoera Hondarribian zein den jakiteko, 2016an Soziolinguistika Klusterrak Hondarribiko euskararen kaleko erabilerari buruz egindako ikerketa bati errepara daiteke. Datuek diotenez, herritarren %60 euskal hiztuna da, baina %24,6k erabiltzen du kalean egunerokotasunean.

**Mendialdetik, herrira**

Egungo euskararen egoera soziolinguistikoa duela berrogei eta hamar urtekoarekin alderatzen bada, aurrerapausoak eman direla nabaria da. Euskara bizirik dago. Hala ere, jarrerari dagokionez akaso atzerakada izan dela uste Herri Batzordeko kideak. Hondarribiko hizkuntza ohiturei erreparatu, sumatzen da: euskaraz dakiten helduen %13,5 aritzen da euskaraz beraien artean, eta euskaraz dakiten helduen %46ek hitz egiten du euskaraz haurrak inguruan badaude.

Akartegi, Zimizarga eta Amute Kosta auzoak euskaraz gehien hitz egiten diren eremuak izatea ez dela kasualitatea dio Maiozek. Euskarra etxetik



Euskaraldiko banderatzoxa Alde Zaharrean. ALAINA ARANBURU

*Euskaraldiaren erronka nagusia, Hondarribian eta edonon, hizkuntza ohituren gainean hausnarketa eragitea izango da.*

## Ispilu hutsak

kano erabiltzen denaren seinale izan daiteke. Hain zuzen ere, kontutan hartuz herriko gazte eta helduen erabileraren batezbestekoa %13koa dela, auzo horietako bizilagunen %31k hitz egiten du egunerokotasunean euskaraz. Hondarribiko batezbesteko orokorraren bikoitza da.

Gazteen eta haurren euskararen erabilerari arreta jarriz gero, haurren %41,6 eta gazteen %11,8

mintzatzen du euskaraz. Helduen jarrerak eta hizkuntza ohiturak jarraitzen dituztela dio Maiozek, haiek, «ispilu hutsak» direlako.

Erronka nagusia, beraz, gazteengan eta haurrengan erreferente diren eta horiengana eragina duten euskal hiztun helduek, euren hizkuntza ohituren gaine-ko hausnarketa sakona egitea da Euskaraldian eta harago, iritzi hori du Blaganeko kideak.

## Entitateak

Abotsanitz Herri Batzarra  
Alarde Fundazioa  
Ama Guadalupekoa ikastetxea  
Ama Guadalupekoa ikastetxea,  
Bigarren Hezkuntza  
Arma Plaza Fundazioa  
Balazta, Bidasoko Bizikletaren  
Aldeko Elkarte  
Bale Urdina  
arte tailer denda  
Banco Sabadell  
Itxaropena taberna  
BBVA  
Bidasoko ESI  
Billabak  
Blagan, Hondarribiko Euskara  
Elkartea  
Maddi Iraola botika  
Caixabank  
Done Pedro Itsas Gizonen  
Kofradia  
Eguluze ikastetxea  
Emeki Emakume Elkarte  
Endanea  
Enean Arkitektura Estudioa  
Eroski Center  
Eroski Kooperatiba  
Elkartea  
Larrea botika  
Maite Iraola botika  
Jon Otxoa Oronoz Fisioterapia  
Sokoa Fisioterapia  
Goiz Argi belar denda  
Hondarribia Arraun Elkarte  
Hondarribia Futbol Elkarte

Hondarribiko EH Bilduren  
Udal Taldea  
Hondarribiko EAJ  
Hondarribiko Mintzalagunak  
eta Dantza Eskola  
Hondarribiko sare  
konpontzaileak  
Hondarribiko Udal  
Euskaltegia  
Hondarribiko Udal  
Hondartza kiroldegia,  
Kirolzer  
Jaizkibel Konpainia  
Joxean harategia  
Alkain, brikolajea  
eta etxerako gaiak  
Kutxabank  
Laboral Kutxa  
Lamiarri tatuaje estudioa  
Sokoa liburudenda  
Loretzu Jan & Edan  
Marian janaridenda  
Masaje & Thai  
osteoptatia klinika  
Psilocybenea  
Rural Kutxa  
Sustraiak  
Talaia BHI  
Talaia HLHI  
Txantxangorri  
taberna-jatetxea  
UVESCO (BM supermerkatuak  
eta Super Amara)  
Xaia kafetegia

Egitaraua  
martxan da  
azaro hasieratik

Guztira hiru tailer antolatu dituzte Euskaraldiaren prestaketa egiteko Hondarribian: **belarriprestena, ahobiziena, eta belarriprestena nahiz ahobiziena elkarrekin. Lehen biak Kultur Etxean egin ziren, eta bi roletzat zuzendutakoa Itsas Etxea Auditoriumean egingo da, azaroaren 25ean, 18:30ean. Azaroaren 26ean, Nahi dugu hitz eta jolas izeneko bertso**

saio tematikoaz gozatzeko aukera egongo da, Itsas Etxean, 20:00etan. Saioa Alkaiza eta Sustrai Colina arituko dira bertotan, Imanol Artola Felix gai jartzaile delarik.

Gainera, Jagoba Errekondok Etxeko landareak liburua aurkeztuko du. Endanea Gardenen eskainiko du hitzaldia, hilaren 21ean goizeko 11etan.

Sarrerak debalde dira, baina gonbidapenak eskatu behar dira. Udalak Euskaraldirako sortu duen orrialdean edota Arma Plaza Fundazioan egin daiteke hori.

www.gestoriasalsamendi.com

SALSAMENDI  
GESTORIA

María Lezo, 5 . Erreterria. Tel.: 943 52 43 02

- AHOLKULARITZA FISKAL ETA LABORALA  
- TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA  
- AUTONOMOAK  
- ESKRITURAK



# «Aurrekoa arrakastatsua izan bazen, aurtengoa ere»

## ARITZENPARAN DINAMIZATZAILEA

Hondarribiko Euskaraldiko dinamizatzaile lanetan buru-belarri murgilduta dabil Aritz Enparan. Aurtengo parte hartzearekin asebeste agertu da, nahiz eta Euskaraldia izurriaren menpe egongo dela argi duen.

### –REBEKA RUIZ

#### Nola aurreikusten duzue aurtengo ekitaldia?

Aurtengo berritasuna ariguneak izan dira, eta horiek erakarriko dute pertsonen herritar gisa parte hartzea, banaka, ahobizi eta belarriprest moduan. Horrek bultzada bat emango die rol horiei. Orain, izurriarekin zer gertatuko den, ez dakit. Egun batetik bestera gauzak izugarri aldatzen dira, eta ez dago aurreikusterik. Halere, izena emateko zailtasunik ez da izan, eta beraz, aurreko ekitaldia arrakastatsua izan bazen, aurtengoa ere, seguru.

#### Ariguneak dira aurtengo berritasuna. Zergatik ariguneak?

Aurreko ekitaldian, banaka, herritar moduan, parte hartu genuen, eta horretarako konpromiso batzuk eskatu zitzaizkigun. Hamaika egunerako konpromiso batzuk ziren. Orain eskatu zaiguna da, herritar moduan konpromisoak hartzeaz gain, pauso bat gehiago emateko: goazen nolabait egitura daukaten talde horietan, entitateetan, ere eragite-

ra; talde konpromisoa hartzerantz bultzatu ditzagun. Hori da helburua. Entitate gisa, lehenengo etortzen zaizkigunak burura beti dira enpresak edo administrazio publikoa, baina horren barruan sartu ditugu talde egitura daukaten bestelako entitateak: kirol taldeak, erakunde kulturalak, abesbatzak, dendarri txikiak, tabernak, Psilocybe moduko musika elkarteak... Kasuistika asko egon daitezke, baina egitura bat izan behar dute, helburu konkretu bat izan.

#### Ariguneak, euskaraz lasai aritzeko guneak, beharrezkoak direla uste duzu?

Bai, nik uste dut euskaldun guztiok momenturen batean estres linguistikoa sufritu dugula. Horrek aditzera ematen duena da, zu toki batera edo entitate batera joaten zarenean, eta ezagutzen ez duzun pertsona bati hitz egitera zoazenean, lehenengo hitza euskaraz, gazteleraz, frantsesez, ingelesez... Nola egin behar duzun erabakitzeke momentu hori da estres linguistikoa, ezinegon



REBEKA RUIZ

hori. Faktore askorengatik izan ohi dugu estres linguistikoa, baina hori arintzera bidean, ikusaraztea ni entitate batera joan naithekeela eta euskaraz hitz egin dezakedala. Agian besteak ez duela ulertzen esaten dit, eta hizkuntza aldatzen dut, baina ez du nire jarrera gaizki ikusiko, ez da errespetu falta bat izango. Barruan daukagun estres hori arintzeko modua da, eta horretarako eratu dira ariguneak Hondarribian. Entitate horretara joaten zarenean haiek adieraziko dizute leku horretan euskaraz lasai hitz egin dezakezula.

#### Aurtengo beste berritasuna da iraupena hamabost egunera luzatu dela. Nola garatuko dira egun horiek?

Segur aski aurretik egingo den

lanketa guztiak eramango duela lasterketa baten moduan aurrera Euskaraldia, bultzatuta etorriko den ekitaldi bat izango da. Pentsa, entitateetan egiten duten lehen lana da ariguneak identifikatzea, eta horietan parte hartzen dutenak aktibatzea. Bestalde, herritarrek ahobizi eta belarriprest modura izena ematea, eta horiek aktibatzea ere dagozkigu. Aktibazioa, beraz, bi aldeetatik etorriko da, eta gaur iritsiko gara bien arteko bateratze puntu horretara. Printzipioz bultzadak jarraitu beharko luke hamabost egunez, edo behintzat, elikatu beharko luke.

#### Zein da Euskaraldiak herritarrei planteatutako erronka? Zein da mahai gainean jarritako ariketa?

Euskaraldiaren helburu nagusia da guretzat ohikoak diren eta normalizatzen ditugun hizkuntza ohiturak eraldatzea. Beste modu batera jokatzeko aukera dagoela ikusaraztea, ahalmen hori daukagula, eta ez dela ezer gertatzen gainera. Orain arte oso barmatuak ditugun ohitura horiek hautsi ez, ezin delako, baina norberak bere buruari ikusaraztea badaudela beste modu batzuk, eta hizkuntza ohituretan beste joera batzuk hartzeko aukera dagoela. Horretarako sortu ziren ahobizi eta belarriprest ro-



«Euskaldun guztiok momenturen batean estres linguistikoa sufritu dugu»

lak. Norberak erabakitzen du zein rol hartzen duen, bai ariketa horretarako, zein Euskaraldia bukatuta. Norberaren mugak zeintzuk diren ikustea, eta herritar moduan hausnartzea da helburua, bakoitzak zer egin dezakeen erabakitzea, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko.

#### Zein mezu helaraziko zenieke hondarribiarrei Euskaraldiari begira?

Aurrekoan parte hartu zuten horiei, berriz ere parte hartzeko eskatuko nieke, ikusi genuelako merezi izan zuela. Eta aurrekoan parte hartu ez zutenei, animatzeko esango nieke, galdetzeko parte hartu zutenei ea beraiek nola sentitu ziren. Konpromiso bat da, txikia, askotan modu naturalean ateratzen dena. Egoera dela-eta jendeari erne egoteko ere eskatu nahi diot, eta ekitaldirik ezin bada egin, banderola jar dezatela balkoian, Euskaraldian gaudela sumatzeko. Mahaia jaritzen dugun egunetan eskura daitezke.

r Ruiz@hitza.eus

Eman izena ahobizi edo belarriprest modura

izenematea.euskaraldia.eus



Hondarribiko Udala

Ia 1.700 irundarrek eman dute izena aurtengo Euskaraldian. Kaletik harago, aurten bereziki etxeko eta laneko hizkuntza ohiturak astintzeko aukera ona dela uste du Irungo lantaldeak.

# Ezagutzetik erabiltzera salto

## IMANOL SAIZ

**I**rundarrak ere prest daude hamaika egunez euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko. Aurtengo asmo nagusia, Irungo lantaldeko koordinatzaile Lide Rekondoren arabera, «euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala eragitea» da, «Irunen ere, gehiago baitira ezagutzen dutenak, erabiltzen dutenak baino».

Astelehenean, 1.652 irundarrek emana zuten izena (1.302 ahobizi eta 350 belarriprest), 2018an baino 583 lagun gutxiago. «Argi dago izen ematea hasi zenetik, beherakada txiki bat atzeman dela, baina esan dezakegu, bizi dugun egoera berezia izanik, beherakada hori anekdotikoa dela. Hortaz, bide onetik doala dirudi. Dena den, arrakasta kalean neurtuko da, ariketa egiterakoan», azaldu du.

Aurtengo edizioa berezia izango da, baina Rekondok uste du osasun larrialdiak ez duela zertan eragin handirik izan behar emaitzetan. «Etxean ere badaude alda daitezkeen hizkuntza ohiturak, eta gauza bera egin daiteke telefonoz, bideo dei bidez, erosketak egiterakoan edota lantokian», erantsi du.

@ Irungo Euskaraldiko egitarau osoa, esteka honetan: [bidasoa.hitza.eus](http://bidasoa.hitza.eus)



“Jende askok txapa jantzi du jada; gogoz daude”

Mikel Alberdi  
Bidasoa LHII

## Arigune gisa ariko zarete aurten. Zer del- eta hartu duzue erabakia?

Azken urteetan oso normalizatu izan dugu euskara eguneroko hizkuntza bezala. Egunerokoan euskaraz egiten dugunez, nahi izan duguna da gure zentzora bertaratzen den pertsona oro, ikasleak edo kanpotik etor daitezkeen enpresak, senti dezatela lasai euskaraz aritzeko aukera dagoela gurean. Hori helarazi nahi dugu aurten. Izan irakasle, langile, garbitzaile, atezainak... Denek hartuko dugu parte.

## Zer bait berezia prestatu duzue egun horietarako?

Oraindik horretan gabilta. Gure asmo nagusia ikasleen artean erabilera sustatzea da. COVID-19a dela eta, ikasle batzuk etxean

konfina daitezke Euskaraldiak irau bitartean, beraz, lehiaketa telematiko batzuk egitea aurreikusitako dugu, beti ere euskara sustatzeko. Alde batetik, Instagramen lehiaketa bat egingo dugu, eta bestetik, Egunean Behin jolasaren antzeko joko bat sortuko dugu.

Irakasleentzat ez da aldaketa handirik egongo. Gu 85 bat gara jada izena eman dugunak, ia denek hartuko dugu parte. Erakutsi dezagun Bidasoan euskaraz egiten dugula, edonork eta edonoz. Jendea gogoz dagoela ikusten ari gara. Askok jada txapa soinean daramate, nahiz eta oraindik ez den hasi. Iazko edizioan ere pasatu zen. Hamaika egunetik harago ere askok txapa mantendu zuten, motxiletan

edo soinean. Hori da lortu nahi dena, urte osora zabaltea joera. Gero eta hobeto gaude zentzu horretan, seinale ona da hori.

## Erabilera datuak dira kezka nagusi Irunen. Nola eman bira horri?

Irungo Euskaraldiko Batzordeetan egon naiz, eta kezka nagusia hori da, erabilerarena. Irakasleek une oro euskaraz egiten dugu, ikasleekin ere bai, baina beraien artean daudenean joera aldatzen da. Nahiz eta euskaldunak izan beraien artean gaztelerara egiten dute salto maiz. Txip hori aldatu beharra dago, eta horretarako heziketa zentro eta ikastetxeak funtsezkoak gara. Ea datozen Euskaraldiko edizioekin arazo horri bira ematen diogun pixkanaka.



“Zelaian eta kanpoan, lehen hitza, euskaraz”

Adur Amilibia  
Bidasoa Atletiko Taldea

## Zergatik zarete arigune?

Kluba betidanik euskara ahal duen moduan bultzatzen saiatu da. Gure bileretan eta haur guztiak lehen hitza euskarazkoa da beti. Eta nola ez, horrelako egitasmo batean egon behar genuen, zalantzarik gabe. Euskaraldia erronka bat da, baina baita ere erreflexio puntu bat. Urtean zehar landutakoak mahai gainean jartzen ditugu. Autokritika horrek pixkanaka hobetzen laguntzen digu. Hor egon behar dugu, eta hor egongo gara.

## Nola ariko zarete 11 egun horietan?

Ariguneena oso ongi prestatua genuen alarma egoera aurretik, baina aurreikusitakoa moldatu

behar izan dugu. Bileretan, adibidez, euskaraz aritzen gara, eta hamaika egun horietan saiakera berezia egingo dute denek. Monitorean euskara maila ere neurtu dugu, noraino hel daitezkeen jakiteko. Hala, ahalbidetzen dizkiguten kirol jarduerak guztietan euskaraz izango da lehen eta azkeneko hitza, zelai barruan zein kanpoan, orain arte bezala. Baina asmo nagusia da joera hori urtean zehar mantentzea. Egia da oraindik gauza asko daudela hobetzeko. Bulegoko bi langile, adibidez, euskara ikasten hasi dira. Pixkanaka pausoak ematen ari gara.

## Erabilera datuak dira kezka nagusi Irunen. Errealitate hori

## ikusten duzue zuek ere entrenamenduetan?

Irunen eta azkenaldian Hondarribian ere erabilera datuak ez direla oso onak. Zaila da egoera. Euskaraldia bezalako ariketek laguntzen dute urratsak ematen, behintzat egun horietan gehiago saiatuko direlako erabiltzen, baina badirudi urtean zehar ahazten zaigula. Haur denak gurekin euskaraz aritzen dira, baina beraien artean maiz gaztelerara jotzen dute. Gogoetarako gaia da hori. Ez dakit zein izan daitekeen irtenbidea, zaila da egoera. Bien bitartean, Bidasoa Atletiko Taldean jarraituko dugu 365 egunetan haur zein gurasoekin euskaraz egiten.

IRUNEN EUSKARA GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN  
EUSKARALDIA BATZORDEA  
IRUNGO UDALA





“Uste baino profesional euskaldun gehiago daude Osakidetzan»

**Garbiñe Loiarte**  
Bidasoa ESI

**Osakidetza langileentzat bereziki zaila den egoera honetan, tarte atera duzue arigune gisa izena emateko. Zergatik?**

Azken urteetako gure helburu nagusia euskararen ezagutzatik erabilerara salto egitea da, bide horretan urratsak egitea. Esperientzia ugari egin ditugu lanean ohitura horiek aldatzeko. Eta Euskaraldia erabat lotuta dago horrekin. Beraz, aukera paregabea izango da orain arte landutako horri guztiari jarraipena emateko. Aurtengo ediziorako asmo asko genituen, baina azkenean egoera kaskarrean harrapatu gaitu osasun larrialdia. Bigarren agerraldi honetan gaixoen kopuruak goraka doaz etengabe, egoera oso konplikatua da, eta ahal izan dugun bezala, birmoldatu behar izan dugu aurtengo ediziorako aurreikusitakoa.

**Beraz, nola aurreikusi duzue ariko zaretela?**

Hondarribiko eta Irungo osasun zentroetan eta Bidasoko Ospitalean, guztira, ia 100 bat lagun ariko gara ahobizi edo belarriprest gisa. Egun horietan arretaren

zenbateko handi bat euskaraz emango dugu, baina orain arte bezala. Harrera guneak eta zenbait kontsulta identifikatuko ditugu, indarrak hor jartzeko. Jen-deak ikus dezala uste baino profesional euskaldun gehiago gaudela Osakidetzan. Hori errealitate bat da, asko gara, gero eta gehiago gainera, baina badirudi askok ez dutela hori ikusten.

**Erabileratuak dira kezka handiena Irunen. Nola eman bira egoera horri?**

Uste dut Euskaraldiak lehen harritxo bat jarri zuela lehenengo edizioan, eta honetan berri bat jarriko duela. Gurean, adibidez, jende oso beldur da ea medikuak euskaraz ulertuko ote duen, eta gaztelelara jotzeko joera dago. Laneko ohiturak oso errotuta ditugu. Euskaldunek ohitura handia dugu lau lagun bagaude, eta batek euskaraz primeran ez badaki, denak gaztelelara jotzeko. Zaila da aurrera pausoak ematea, baina Euskaraldiak uste dut balioko duela horretarako, pixkanaka bada ere. Mezu hori helarazi behar dugu, jakin dezatela asko garelako euskaldunak, eta horretarako lehen hitz hori euskaraz egitea funtsezkoa da. Lehenengo hitza euskaraz egiteko ohitura hartu behar dugu, eta uste dut Irunen sorpresa politik eraman ditza-kegula. Izan ere, Irunen euskaldun asko dago, edo behintzat euskara ulertzen dutenak asko dira. Belarriprest asko egon daitezke ezkutuan, hauek guztiak sentsibilizatzea eta armairutik ateratzea beharrezkoa izango da edizio honetan eta hurrengoetan ere.

Gainera, uste dut ariketa honenkin beti geratzen zaigula zerbait. Irtsiko da abenduaren 4a, baina oraindik ere sumatuko da Euskaraldiaren giroa, 2018an hori pasatu zen. Partaide guztietan arrasto bat utziko duela uste dut, urte urte handitzen joango dena, ziu.

**Entitateak**

837 komunikazioa eta publizitatea

- Adiskidetuak
- AEK
- Alarde Tradizionakleko Buruzagien Batzordea
- Alberdania argitaletxea
- Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkarte
- ALL4movil Telekomunikazioak
- Allika arropa denda
- Altzola taberna
- Atrezzo marko denda
- Auditek Centro Auditivo
- Banco Sabadell
- Bankoa
- Yenes taberna
- BBVA
- BDS Koop Eraldaketa Fabrika
- Bidasoa Atletiko Taldea
- Bidasoa Bizirik garapen agentzia
- Bidasoa LHI
- Bidasoa SAT
- Bidasoa XXXI igeriketa taldea
- Boulevard garagardotegia
- CD Bidasoa eskubaloit taldea
- CAF
- Caixabank
- Deperita fruta denda
- Easo Secretaria Virtual
- El Pilar ikastetxea
- ELA sindikatua
- Elatzeta HLHI
- Elkar liburu denda
- EOI Irun HEO
- Erlaitz Mendi Elkarte

- Eroski Koop. elkarte
- Erroibide Irun saskibaloit taldea
- Foro Irun XXXI-Hogeiabat Kultur Elkarte
- Goz Berritzegunea,
- Ikastetxeentzako Laguntza Zerbitzua
- Gaurko Andreak
- Berdintasunaren Aldeko Elkarte
- Gestion de Servicios Residenciales
- Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarte
- Goiz Argi belardenda
- Goxo Frutak
- Herri Jakintza
- Hiritik At kooperatiba
- Hirubel loredenda
- Hirubide BHI
- Haurko Fundazioa
- I. Ocio Larrañaga botika
- IGA abesbatza
- Iraun haurreskola
- Iriondo Garraioak
- Irunabar
- Irungo EAJ
- Irungo EH Bildu
- Irungo Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza
- Martindozenea Irungo Gaztelekua
- Irungo Mendizaleak Elkarte
- Irungo San Vicente de Paul ikastetxea

- Irungo Sozialistak
- Irungo Udala
- Jaizubiako Zaldi Elkarte
- Kabigorri ateneoa
- Kattagorri haurrentzako zapata denda
- Kemen Dantz Taldea
- Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan
- Kilika haurtzaindegia
- Kolon menaje denda
- Kutxabank
- La Salle Irun
- Laboral Kutxa
- LAB sindikatua
- Lantalau
- Mari taberna
- Marte laborategia
- Mendibil pedagogia elkarte
- Multiopicas Irun
- Olaizola Inmobiliaria
- Peperino
- PC Box Irun
- Pio Baroja BHI
- Plaiaundi institutua
- Real Union Club
- Rural Kutxa
- San Martzial Guduaren V. Mendeurrena Fundazioa
- Su Txikian elkartea feminista
- Toki Alai BHI
- Txinzer
- Txorimaloak soinu taldea
- UVESCO

«Udalarekin ez genuen konexiorik lortu, erabat bakarrik sentitu ginen»

–I.S.

Lehen Euskaraldian buru-belarri aritu zen Irungo Aitzondo Euskara taldea, baina izandako «esperientzia txarrak» bigarren honetan antolatzaile lanak uztera behartu zituela kontatu du taldeko kide Beñat Muguruzak.

2018 hartan, lehen unetik «gihar falta» sumatu zuten Aitzondokoek, udalaren aldetik «oztopoak beste-

rik ez» zituztela aurkitu dio oroz, eta ariketa soziala amaitzerakoan «osotonu itsusian eta autokritikarik gabe» aritu zela udala. Orduan eten zuen harremana udalarekin Aitzondok. «Udalarekin ez genuen konexiorik lortu, erabat bakarrik sentitu ginen, eta azkenean koasko higitu gintuen esperientzia hark, bai elkarte mailan bai maila pertsonalean».

Aurten ere udala haiekin harremanetan jarri da, baina ez dute ikusi norabidea aldatzeko inolako borondaterik. «Hau guztia pena handiz esaten dugu. Irun bereziki leku aproposa iruditzen zaigu Euskaraldiaren formula aplikatzeko; euskaraz txukun egiten duten milaka lagun bizi dira erdaraz hemen, eta horiek aktibatzen balio lezake. Hori bai, Irun hiri puska bat da, eta gogoia eta baliabideak jarri behar dira».

Antolatzaile gisa aritu ez arren, ahobizi gisa arituko dira Aitzondoko kide guztiak. Bide batez, irundar guztiak parte hartzerantz animatu dituzte.

**Guztion eskola publikoa gaurkoari eta biharkoari erantzuteko**

[www.elatzeta.eus](http://www.elatzeta.eus)

**elatzeta**  
IKASTETXEA

Araba kalea, 44 20305 Irun / 012102aa@hezkuntza.net / 943937759

**baikara**  
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Errenteria-Oreretako 44 entitatek babestu dute Euskaraldia. Norbanakoen inplikazioaz gain, entitate horiek ariguneak eskainiko dituzte euskaraz lasai, eroso eta konplexurik gabe aritzeko.

# Nonahi, uneoro, guztiekin

## IKERNE ZARATE

**E**uskaraldiarekin bat egin dute Errenteria-Oreretako 44 entitatek. Horietako bakoitza arnasgune bihurtuko da. Euskaraz lasai, erraz eta konplexurik gabe aritzeko eremua eskainiko diete herritarrei. Errenteria-Oreretako ikastetxeek ez dute hutsik egin; denek egin dute bat inizatibarekin eta gaurtik hasi eta abenduaren 4a arte gehiago indartuko dute euskararen aldeko apustua eta lanketa: hamar ikastetxe eta guraso elkartetik egin dute bat.

Bizaraingo irakaslea da Martxel Sagarzazu. Euskaraldia garrantzitsua dela oso, eta horregatik egin dutela bat esan du, baina euskararen aldeko jarrera eta lana egunerokoa ezinbestekoa direla aldarrikatu du: «Gure ikastetxean ari diren ikasleen egoera soziolinguistikoa ezberdina da, ingurune erdaldunagotan gaude, eta horrek esfortzu handiagoa eskatzen dio hezkuntza komunitateari ikasleen artean hizkuntza ohituretan eragiteko; esfortzu ikaragarria egiten dugu, egunero, ikasleak euskarara hurbiltzeko».

Hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekotzat jo du Sagarzazuk, baita irakasleena ere, eragingo badute. Ikasleek ezin dute berez Euskaraldian izena eman, eta hori dela-eta ikastetxeak berak, belarriprest



Euskaraldiaren aurkezpena egin zuten hainbat entitatek Agirre Lehendakariaren plazan. HITZA

eta ahobizi txapa eta pegatina propioak sortu dituela kontatu du. Hori, gainera, herriko komertzioetan egin du; arlo hori ere balioan jarri nahi dutelako Bizarainen: «Tokian tokiko sal-tokietara jo behar dugu, eta gure arteko harremanak euskaraz sustatu».

Guraso eta ikasleekin, gainera, lehiaketa antolatu dutela esan du Sagarzazuk, euskaraz

aritzeak, beraz, saria izango du Euskaraldia bitartean Bizarainen, «ikasleen euskararekiko konpromisoa indartzeko bide gisa».

Aisialdian euskara zabaltzearen garrantzia, haur eta gazteei hizkuntza formaletik kanpo euskaraz aritzeko aukera erakargarriak eskaintzea ezinbestekoa iruditzen zaio, eta horren harira, Kuadrillategi aipatu du; «Progra-

ma horretako arduradunak urtero etortzen dira ikasgeletara ikasleei lehen eskutik azaltzera. Euskara gurean lehenetsuna da, garrantzitsua, Euskaraldian, baina baita gainontzeko egun guztietan ere».

### Hizkuntza ohiturak aldatu

Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera

sustatzea dela nabarmendu du Amaia Arruti Orereta Ikastolako irakasleak: «Horrek, bete-betean erantzuten dio gure hezkuntza proiektuaren ardatzari. 2018ko Euskaraldiaren lehenengo edizioan gure hezkuntza komunitatearen parte hartze aktiboa bultzatu genuen eta esperientzia bizi bezain aberasgarria izan zen». Euskaraldiaren bigarren edizio honetan, beriz, norbanakoaren parte hartzea sustatzeaz gain, entitate gisa konpromisoak hartu nahi izan dituztela erantsi du, arigune izanez.

Euskararen normalizazio bidean ikastetxeek hartutako konpromisoa handia da Arrutirent hitzetan. «Euskararen normalizazioan eragile izan behar du hezkuntza komunitateak, giltzari baita», esan du. Helburua ez dela soilik euskaraz ikastea edo hiztun gaituak izatea nabarmendu du, hizkuntza komunitate aktiboa izatea parte baizik, «bide horretan, ezinbestean, eskolaz kanpoko esparruak astindu be-

zumardi

Egunkariak  
Aldizkariak

ARGUNEAK

J.I. Gamon Zumardia  
Errenteria - Orereta

kioskoa

BA DA TOR!

EUSKARALDIA

Bizarain  
ikastola

GUERE  
EUSKARALDIAREKIN!

San Marcos z/g. 20100 Errenteria-Orereta  
Tel. 943 3416 45 - HLH / 943 89 9413 - DBH  
www.bizarain.eus - 013522aa@hezkuntza.eus



har dira». Gakoa: euskara erdigunean jartzea, eta erakundeek erabaki estruktural zein iraunkorrak hartzea.

Gazteek euskaraz egin dezaten nola eragin daitekeen asmatzea konplexua dela dio, «eragiten duten faktoreak askotarikoak baitira». Hala ere, tresnetako bat gazteei zuzendutako euskarazko produktu eta jarduera erakargarriak eskaintzea dela dio: «Gure gazteak testuinguru ez formaletik elikatzen dira, sare sozialetatik, hedabideetatik... eta horiek guztiak gazteleraz jasotzen dituzte. Euskaldun erreferenteak behar dituzte».

Euskaraldiak hausnarketarako bidea zabaldu du Arrutiren esanetan, eta bide horretan ikasgeletan lantzeko konpromisoa hartu dute. «Ikasleei bina konpromiso hartzeko eskatu diegu, ikastola esparruan betetzekoa bat eta familian bestea. Horrekin eguneroko hizkuntza ohituren kontzientzia izatea eta horren haritik aldaketa txikiak eragitea lortu nahi dugu», zehaztu du.

#### Konpromisoa, egunerokoa

Euskaraldian bakarka parte hartzeaz gain, kolektibo gisa parte hartzeko aukera oso egokia iruditu zaio Koldokide Guraso elkarteari. «Arigune izatea erabaki dugu, nahi duenak gurekin euskaraz lasai erlazionatzeko aukera izan dezan, eta pausu horrekin gerora harreman ohitura horiek aldatzea lortzen badugu, primeran», esan du Ainhoa Gilek. Hezkuntza oinarrikoa da bere ustez euskararen normalizaziorako: «Egunerokoa da, ez da egun bakarera mugatzen. Etorkizuneko ahobiziak eta belarriprestak bertan, ikastetxeetan sortzen dira, eta hezkuntza komunitate osoak, eta batez ere Euskal Eskola Publikoko komunitateak gizartea euskalduntzen egiten duen lana itzela da».

Euskararekin harremanik ez duten ikasleak ere bertan eus-



«Esfortzu ikaragarria egiten dugu egunero ikasleak euskarara hurbiltzeko»

Martxel Sagarzazu  
Bizarain Ikastolako irakaslea



«Hezkuntza komunitatea giltzarri da euskararen normalizazioan»

Amaia Arruti  
Orereta Ikastolako irakaslea



«Eskoletan sortzen dira etorkizuneko ahobizi eta belarriprestak»

Ainhoa Gil  
Koldokide guraso elkartearen kidea

kalduntzen direla nabarmendu du Gilek. «Ikasle horiek euskaraz ikasten dute, euskara ulertzen dute, eta gai dira euskaraz komunikatzeko; egiten duten lana, goraipatzekoa da», adierazi du.

Gilek uste du oinarrikoa dela haur eta gazteek euskara aisiarekin lotzea, ez bakarrik ikastetxe-ko hizkuntza gisa identifikatzea: «Ezinbestekoa da euskarazko kalitatezko aisia. Ondo pasatzen duten uneekin lotzen badute euskara, errazagoa izango da erabilerak gora egitea».

## %14,7

#### KALE ERABILERA

2016. urtean egin zuten Errenteria-Oreretako euskararen kale erabileraren azken neurketa.

#### Entitateak

AEK Euskaltegia, Xenpelar
Banco Sabadell
Bizarain BHI
Bizarain HLHI Ikastola
Caixabank
CIFP Don Bosco LHII
Cristobal Gamon BHI
Dantzaz
Egiluze Ikastetxea
Ereintza Dantza taldea
Ereintza Eskubaloi
Ereiten Kultur Zerbitzuak
Eresbil
Eroski Koop.
Errenkoalde Elkarte
Errenteria Musikal
Errenteriako Bake Epaitegia
Errenteriako Udal Euskaltegia
Errenteriako Udala
Gaztedi Txiki Elkarte
Gure Esku Errenteria-Orereta
Hibaika Arraun Elkarte
Jaso Administrazioak
Koldo Mitxelena BHI
Koldo Mitxelena HLHI
Koldokide Guraso Elkarte
Kukai Dantza
Kutxabank
Laboral Kutxa
Lau Haizetara Topagunea
LGTBI+ Mahaia
Multiopicas Errenteria
Oarso Bidasoko Hitza
Oiartzo Batxilergo Ikastola
Ondu Fisioterapia
Orereta Ikastola
Rekalde 21 Corporacion
Rural Kutxa
Sanmarkosene Gerontologikoa
Telleri Alde Ikastetxea
Tempografix
Touring Kiroi Elkarte
Zirika Neska Gazte Taldea
Zituene

# Iparragirrentzat txistuz jantzitako bertsoak, Euskaraldian

COVID-19aren osasun larrialdiak eragina izan du Euskaraldiaren egitarauaren osaketan • Parte hartze prozesuko bigarren saioa egingo du Lau Haizetarak

#### -I. ZARATE

COVID-19aren osasun larrialdiak eragina izango badu ere, zalantzarik ez da, handia izango da Euskaraldiaren bigarren ekinaldia. Norbanakoen euskararen aldeko konpromisoa biltzeaz gain, entitateek babestuta, konpromiso kolektiboa ziurtatuko dute.

Egitarau oparoa antolatzea zuten helburu, baina pandemiak mugak jarriko dizkio ospakizunari; ez ordea, euskarari, eta hori da konpromisoa, familia artean, lantokian, ikastetxean, dendariekin, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin aritzea euskaraz, hori baitu lau haizetara zabaltzeko modurik eraginkorrena, ahoz aho saltoka ibiltzea, batetik bestera, formal zein ez formal, bihurri zein serio... Aritzea, erabiltzea, barra-barra egitea da gako bakarra.

#### Urretxuko bardoa

Euskara izango da Euskaraldian izarra, zalantzarik ez da, baina horren ostean egitarauaren apustu ausartena *Gure herriko Iparragirre* ikuskizuna izango da. Iñigo Legorburu idazle eta bertsolari errenteriarak eta Udal Txistulari Taldeak elkarla-

nean sortu dute ikuskizuna Urretxuko bardoa jaiotze bide mendeko bete direnean. Maialen Akizu eta Iñigo Legorburu bertsolariak; Iñaki Mendizabal abeslariak; Arrate Hernandez narratzaileak; Iñaki Dieguez akordeoi jotzaileak; Jose Luis Alonso baxu jotzaileak; eta Xabier Vesga, Olatz Oliveri, Josu Izagirre, eta Iñaki Letamendia udal txistulari taldeko kideek hartuko dute parte.

Niessen Kulturgunean emango dute, hilaren 27an, 19:00etan hasita. Aldez aurretik gonbidapenak jasotzea ezinbestekoa izango da eta horretarako bi bide izango dira: Niessen kulturguneko leihatilan, edo [bibe.me](http://bibe.me) web orriaren bidez.

#### Parte hartze saioa

Lau Haizetara elkarteak, berriz, *Aukerak sortzen* parte hartze prozesuaren bigarren saioa egingo du abenduaren 4an, Merkaturarren, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman behar da 943 34 01 43 telefono zenbakira deitu eta erantzungailuan mezua utzita; 688 76 53 98 telefono zenbakira whatsapp bidalita; edo [bulegoa@lauhaizetara.eus](mailto:bulegoa@lauhaizetara.eus) era mezua bidalita.

# Aiton-Etxe

## EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA • PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42

- OIARTZUN -

www.aitonetxe.com



*Euskaraldiarekin kaleetan euskararen presentzia aregotzeko aukera dute lezoarrek. Baina benetako erronka abenduaren 5ean hasiko da, behin ariketa kolektiboa bukatzen denean.*

# Euskararik gabe Lezorik ez da



Lezoko 30 entitatek eman diote baiezkua argiguneak sortzeari. Irudian, horietako asko, Goiko Plazako argazkian. HITZA



«Euskaraldiak barne erronka bat ekarri digu gure elkartera»

**Joxe Luix Agirretxe**  
Etxetxo Lezoko Memoria Historikoaren Elkarte

–U.E.  
**Zergatik erabaki du Etxetxok argigune izatea?**

Euskararen normalizazioaren alde gaudelako, baina talde bezala ere erronka bat daukagu. Bilerak, nagusiki euskaraz egiten ditugu, baina ez erabat. Orduan, taldean euskaldun berri dezente ditugu eta gaztelaniarako inertzia batzuk badaude. Nahi dugu gure burua behartu euskararen aldeko inertzia hartzeko.

**Kalera begira, ordea, euskara duzue ardatz.**

Hori garbi daukagu. Gure publikazioak euskaraz izaten dira. Baina barne erabileran eragin nahi dugu. Euskaraldiak barne erronka bat ekarri digu. Prozesu pertsonala egina dugu, orain talde dinamikan hori gutzia aplikatu nahi dugu.

**Memoria historikoa lantzen duzue. Baina, zer nolako garrantzia du euskarak Lezo historikoki?**

Herriaren berezko hizkuntza da. Lezoko euskararen historia soziala ikusten badugu, lezoarrek nagusiki euskaraz bizi izan dira 1970eko hamarkadara arte kasik. Hor, berreskurapen erronka bat daukagu hizkuntzaren aldetik. Berebiziko garrantzia du euskarak gure historian.

## –URKO ETXEBESTE

**E**z dago ulertzerik Lezoren izatea euskararik gabe. Berezko hizkuntza da herrian, historikoki hitz egin dena. Horregatik kezkatzekoak dira Soziolinguistika Klusterrak 2019an egindako kaleko neurketaren datuak: urte horren hasieran jasotako zenbakien arabera, euskaraz dakitenen %32,6k hitz egiten du kalean euskaraz. 2016ko neurketan %36,5koa izan zen datu orokor hori. Beherakadaren arrazoia, batez ere, gazteen erabilera: 15-24 adin tartekoaren artean, 2019an jasotako datuen arabera %28,5koa izan zen, 2016ko %41,6aren aldean.

Atzeraldiaren aurrean eragitea tokatzen da, ordea. Lezoko Udalak lehentasunen artean du euskarari (erabilerari eta ezagutzari) bultzada ematea, eta herriko hainbat eragilek ere egoskor dihardute euren egunerokoan, saiatuz haien artean lanerako edo komunikaziorako hizkuntza

dena, bizitzeko ere badela demonstratzen.

Euskaraldia zeregin horietarako lagungarri izango dela zalan-tzarik ez dago. Gaurtik abenduaren 4ra, ziur, ohikoa baino gehiagotan entzungo dela euskara herriko kaleetan —baldin eta osasun segurtasun neurriek hala uzten badute—. Baina benetako erronka abenduaren Setik aurrerakoa da. Euskaraldia bitartean sortuko diren inertzia berriak mantentzea, eta ahal bada areagotzea da helburua.

Horri begira, herriko askotariko 30 entitatek argigune izateko konpromisoa bere egin dute, eta aldi berean ehunka izango dira datozen egunetan ahozki edo belarriprest txapak euren jantziak zulatzen izango direnak.

## Jarduerak

Lezoko Euskaraldiko batzordeak lan handia egin du iniziatiba kolektiboak herrian eragina izan dezan. Hainbat batzar egin dituzte, ardurak banatu, eta aurrerago ekitaldiari gorputza eman diote.

## Entitateak

AEK Euskaltegia, Oroitzene Allerru Kirol Elkarte Allerru-Jaizkibel Ehiza eta Arrantza Elkarte BPXport Lezo Caixabank Etxetxo Lezoko Memoria Historikoaren Elkarte Euskara Talaia Gaxuxa Emakume Taldea Hautxo haurreskola Hezikuntza Guraso Elkarte Ixkulin Elkarte Laboral Kutxa Lezo Herri Eskola Lezo Institutua Lezoko Badian Bizi

Egindakoen artean, datozen egunetarako jarduerak. Hala, gaur, 17:00etan, udaletxeko balkoian pankarta jarriko dute Euskaraldia iritsi dela jakinarazteko, suzurien laguntzarekin. Horrekin batera, Aralar kaleko plaza-txoan, Jauregiadekoan, eta Gurutze Santuarenean, dantzariak pieza bat dantzatuko dute aldi berean; plaza nagusian Katerin

## Lezoko Desfile Taldea

Lezoko EH Bildu Lezoko Kurkubi Saskibaloi Kluba Lezoko Udala Lezoko Zinema Ttikia Pasaia-Lezo Lizeoa Piztu Lezo Taloka kafetegia-gozotegia Tiñelu Elkarte Tomas Garbizu Udal Musika Eskola Trapujale Taldea Txerrimuño Txingurri Taldea Xalto eta Brinko Animazio Elkarte Xoxolur Mendi Kluba

Artola eta Iker Belintxon Euskal Herriko txapeldunak izango dira.

Bestalde, abenduaren 3an (Euskararen Eguna da), Tomas Garbizu Lezoko Udal Musika Eskolako ikasleek grabatutako bideo-muntaia zabalduko dute, *Euskaraz bizi nahi dut* abestia ardatz dutela.

[uetxebeste@hitza.eus](mailto:uetxebeste@hitza.eus)



«Aukera ona gara euskararen erabileran eragiteko»

**Jaione Azpiroz**  
Xoxolur Mendi Kluba

-U. E.  
**Zergatik erabaki du Xoxolur Mendi Klubak arigune izatea?**  
Gure irteeretan eta euskara bultzatzen dugu, mendia eta euskara. Talde barrura begira, eta kanpo eragile bezala, euskara erabil-

tzen dugu egunerokoan eta hori indartzeko asmoa dugu. Naturarekin harreman zuzenean, familia eta lagunartean, euskararen erabileran eta hizkuntza ohituraren aldaketan eragiteko arnagunea gara, eta izan ahoziki edo belarriprest, herritar guztiek dute gure mendi irteeretan leku bat. Aukera ona gara euskararen erabileran eragiteko.

**Zuen ohiko funtzionamenduan, beraz, euskarak aparteko garrantzia dauka, ezta?**

Mendi taldeak duen ezaugarrietako bat da jende asko gaudela bertan ekarpena egiten, zeregin ezberdinekin. Hamarreko talde txo bat bagaude. Denak euskaldunak gara, eta gure funtzionamendua euskaraz da.

**Eta aurrerantzean, mendian eta euskaraz eragiteko asmoa duzue, noski.**

Konfinamenduen gaiagatik ezin ditugu irteerak egin. Lastima, Euskaraldia bitartean ezin izango dugula gauza askorik egin. Gainera, herrira zabaltzen ari ginen. Baina dena dela erabileran eragiteko asmoarekin jarraitzen dugu.



«Zerbait naturala da guretzat arigune bezala parte hartzea»

**Eñaut Gantxegi**  
Tiñelu Elkarte

-U. E.  
**Arigune izatea erabaki duzue Tiñelu Elkarte. Zergatik egin nahi diozue Euskaraldiari ekarpen hori?**

Zerbait naturala izan da guretzat arigune bezala parte hartzea

aurtengo Euskaraldian. Gure egunerokoan euskara presente dago: bilerak euskaraz egiten ditugu, barne komunikazioetan ere euskara dugu ardatz, eta webguneko edukiak nahiz sare sozialetakoak ere gure hizkuntzan daude adibidez. Hau da, ohiko funtzionamenduan gure hizkuntza euskara da. Tiñelu, gainera, ez da soilik elkarte gastronomikoa. Kultura eta beste hainbat alor daude sartuta gure zereginen barruan, beraz, euskararen aldeko jarrera aktiboa alor horietara guztietara eramaten dugu. Uste dugu ariguneak beharrezkoa direla, eta ahal dugun heinean konpromiso horri eutsiko diogu.

**Elkarreak erreferente dira gure gizarte. Eragina dute egunerokoan.**

Eta erreferentzia diren heinean, euskararen erabileran ere eredu izan behar direla uste dugu. Horrela egiten dugu egunerokoan, eta Euskaraldia bitartean ere hala izango da.

**Beraz, Euskaraldia bitartean konpromiso batzuk hartu dituzue arigune izateagatik. Baina**

**aurrerantzean ere konpromiso horiei eusten jarraituko duzue?**

Denbora batetik hona lantzen ari garen esparrua da euskararen erabilerarena, ahalik eta zentzurik zabalenean. Nahiz eta zuzendaritzan euskaraz egiteko ohiturarik ez duen kideren bat egon, haiek ere babesten dute euskararen aldeko jarrera. Hau da, elkarrean bileretan eta bestelakoetan ez dute inolako oztoporik jartzen jarduna euskarazkoa izan dadin. Euskararen aldeko atxikimendua eta erabilera pixkanaka landu beharrezkoa da, ez bakarrik Euskaraldia bitartean.

**Belaunaldi askotako herritarrek ibiltzen dira Tiñelun. Euskararen transmisioa ere ematen al da bertan?**

Egia da gurean zaharrak eta gazteak ibiltzen direla, bi bloke edo daudela. Eta bai: haien artean komunikatzeko duten hizkuntza, gehientsuenetan, euskara izaten da Tiñelu Elkarte. Hori garrantzitsua da guretzako, belaunaldien arteko harremana euskarazkoa izatea, eta era naturalean gainera.

Tel.: 943 514 804  
info@lezoherrieskola.eus  
www.lezoherrieskola.eus

# HAZI, HEZI ETA BIZI EUSKARAZ

Lezo Herri Eskola

LEZO INSTITUTUA

Tel.: 943 89 92 81  
lezoinstitutua.hezkuntza.net  
institutua@lezoinstitutua.net

EUSKARALDIA

Oiartzun da Oarsoaldean eta Bidasoan udalerririk euskaldunena. Oiartzuarren %80 inguru da euskara ulertzeko gai. Erabilera akuilatzen txapa hirugarren aldiz jantziko dute.

# Euskara arnasten jarraitzeko

-ERIK GARTZIA

**A**urten bigarren aldiz egingo da Euskaraldia. Oiartzuarrek, baina hirugarren aldiz jantziko dute ahobizi edo belarriprest moduan definitzen dituzten txapak.

Izan ere, orain dela hiru urte Euskaraldiaren aurrekari bezala izenda daitekeen esperientzia abiarazi zuten Oiartzunen: *Konpromisotik ad/Ritzera* jarduera. Beste hainbat herri eta auzoetako esperientziak ikusi eta eredu propio bat sortu zuten. Kale erabilera astindua eman nahi izan zuten horrekin, eta 1.650 lagunek eman zuten izena. Izan ere, hamar oiartzuarretik zortzi dira gai euskara ulertzeko, baina kaleko erabilera —2017 urte hartan behintzat— %58 inguruan zegoen.

Euskararen arnagunea da Oiartzun, eta erabilera ahalik eta handiena izateko kontzientzia-zeko ariketa izango da aurten Euskaraldia. Entitate kopuru handi batek eman du izena. Horren arrazoietako bat izan daiteke euskara enpresetara eramateko egindako lana.

## Jolasa, egunero

Asteazken goizetako, 1.350 oiartzuarrek emana zuten izena. Euskaraz aritzeko konpromisoa hartu dute bigarren Euskaraldian. Asteartean lanpetuta egon ziren Euskaraldiko antolatzaile-



Oiartzungo 87 entitatek bat egin dute Euskaraldiarekin. HITZA

ak, 70 izen emate egon baitziren. Ordutik aurrera zifrak gora egingo zuen; 2018an, 1.700k eman zuten izena.

Aurten ekitaldia guztiz baldintzatuko du COVID-19ak. Ahoan maskara jarrita euskaraz hitz egin beharko da. Horrez gain, egitarauan eragina izango du. Ekitaldi bakarra antolatu dute, abenduaren 3rako. Nerea Arriolak *Txor txor* bakarriketa umoretsua emango du, udalereko pleno aretoan, 19:00etan hasita. Sarrerak datorren astetik aurrera eskura daitezke, doan, Urrats paper dendan.

Horrez gain, Biyurrieneko gazteek Kahoot! jolasa antolatu dute Euskaraldiak irauten duen egunetarako. Egunero bost galdera egingo dituzte, honako gaiei buruzkoak: euskara, oiartzu-

erak, hika, Euskaraldia, herriko kultura orokorra eta beste hainbat bitxikeria.

Partaideek, Euskaraldian parte hartzeko ziurtagiria bidali behar dute e-posta bidez: [biyurrienea@gmail.com](mailto:biyurrienea@gmail.com).

Behin izena emanda, Biyurrienean egunero Kahoot! plataforman jokatzeko esteka bat zabalduko du jasotako parte hartzaileen helbide elektronikorietara.

Euskaraldia bukatzen denean, hamabost egunetan zehar puntuazio gehien izan duten pertsonen sari «apartak» eramango dituztela jakinarazi du Oiartzungo gazte taldeak. Gazteek antolatua izanagatik, erronkan Oiartzungo ahobizi eta belarriprest guztiek parte har dezaketela gogorazi dute.

## 87

### ENTITATE

Herriko87 enpresa, komertzio eta elkartek eman dute izena Euskaraldian. Euskara alde batera ez uztea izango da ariketaren helburua.

### Entitateak

- ABB-Niessen
- AEK Intxixu euskaltegia
- Agirrezabalaga farmazia
- Alcampo Oiartzun
- Aldeguna GEE
- Altzibarko Billera
- Antunez botika
- Arraztalo Elkartea
- Artaso Elkartea
- Auntxa Trikitixa Eskola
- Banco Sabadell
- Baobab
- Bazkun Zahar
- Beerlagun SL (Oarsoak)
- Belutene janari denda
- Berkomat
- Bideko Aterpe
- Biyurrienea
- BPXport
- Caixabank
- Carrefour
- Dixidu diseinu grafikoa
- Elizalde BHI
- Elizalde Dantza Taldea
- Elizalde Herri Taldea
- Elordi janari denda
- Eroski City
- Garbiñe estetika zentroa
- Garmendi txokolategia
- Garmendia Iturtxoko
- Girizia Mendizale Elkartea
- Girizia Elkartea
- Harri Beltza
- Hautzaro Dantza Taldea
- Hautzaro Ikastola
- Ibargain Musika Eskola
- Iru-Bide taberna
- Ishbara yoga eta pilatesa elkartea
- Izaro arrandegia
- Kabitxo taberna
- Kastro kafetegia
- Kirikoketa
- Killirikupe Emakume Taldea
- Kutxabank
- Laboral Kutxa
- Labore Oarso Kontsumo Elkartea
- Lartaun abesbatza
- Lintzirin hotela
- Lizar harategia
- Lizarralde ortopedia
- Lorza higiezin zerbitzua
- Luberri museoa
- Maddi
- Marisol janari denda
- Matia fundazioa
- Merka Oiartzun
- Mikel ileapaindegia
- Miren Aizpurua Urbietara
- Miren Josune Cardona
- Museo del Vino taberna
- Oarsoaldea Garapen Agentzia
- Oiarpe
- Oiartzun autoeskola
- Oiartzun Irratia
- Oiartzun Kirol Elkartea
- Oiartzungo EAJ
- Oiartzungo EH Bildu
- Oiartzungo Organozaleak
- Oiartzungo Udala
- Oiartzungo Udal Ikastola
- Partzuergoa
- Olarri Dantza Taldea
- Orratz
- Pagoa
- Pausoz Pauso
- Urkie
- Rekalde 21
- Rural Kutxa
- San Esteban parrokia
- Sasi lore denda
- Sein Izarra
- Soinuenea
- Tolaita ostatua
- Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea
- Txintxosta ileapaindegia
- Urrats paperdenda
- Zubillaga gestoria
- Zumitz

**KIRIKOKETA**  
Ileapaindegia & Estilismoa

Euskaraz bizi, lotsarik gabe!

Aialde, 1. Oiartzun  
943 260 778

**Gu ere AhoBizi eta BelarriPrest Euskaraldian!**

Astelehenetik larunbatera  
8:30etik 20:30era.

**BERTAKO SUPERMERKATUA**  
Olalde kalea 4/5 behe. 943 26 03 45  
Altzibar - OIARTZUN



ERIK GARTZIA

## «Lan mundua orokorrean erdalduna da, baita Oiartzunen ere»

**AITZOL PEREZ DE SAN ROMAN EUSKARALDIKO BATZORDEKO KIDEA**

Euskaraldia entitateei emango die protagonismoa. Perez de San Romanek ziurtatu du, egoera zaila izan arren, harrera ona jaso dutela enpresetan.

### -E. GARTZIA

**10.000 biztanle pasatxo ditu Oiartzunek. 86 entitatek eman dute izena. Zein balantze egiten duzue zifra horri buruz?**

Gustura gaude datuekin. Gainera, ikusita zein garaitan gauden... Lan mundura iristea asko kostatzen zaigu, eta orain, oraindik eta zailagoa izan da. Konfinamenduak harrapatu gintuen hain justu entitateen kanpaina egiten ari ginenean. Kuantitatiboki emaitzekin oso gustura gaude, baina beti egin daiteke zerbait gehiago, Oiartzun industriagune asko dituen herria delako. Lehenengo aldia izateko, oso ongi egon da, egia esan.

**Esan eta esan aritu behar izan al zarete?**

Bisitetarako hilabete bakarra izan dugu, konfinamendua bukatu eta hurrengoa. Aurreko lana telefonoz egin izan dugu. Askotan aurkitzen zenuen ERTE bat egin zutela, euren etorkizuna nolako izango zen ez zekitela... Bestelako kezka batzuk zituzten, baina gu beti ongi hartu gaituzte. Bazekiten zertara joaten ginen, eta ongi hartu

dute. Hori bai, panorama oso zaila aurkitu gara.

**Ahobizi eta belarriprest figurak nahiko argi —ez guztiz— geratu ziren lehenengo Euskaraldian. Entitateek beren papera zein izango den argi al dute?**

Ahobizi eta belarriprest figurak, egia da, oraindik badagoela jendea gaitasunarekin lotzen duena. Ez da gaitasun kontua, baizik eta egun horietan hartzen den jarrera eta konpromiso kontua da.

Entitateekin denbora gehiena pasatu dugu ariguneak zer diren esplikatzen, beraiei dagokiena hori delako. Entitate batzuek, modu natural batean, bazituzten, eta beste batzuek mugimenduak egin behar izan dituzte langileen artean.

**Oiartzun euskararen arnasgunea da. Hori abantaila ala desabantaila al da? Oiartzuarrak eroso ikusten al dituzte erabilerrari dagokion portaerarekin?**

Oso subjektiboa da. Arnasgune izateak laguntzen du enpresa batzuetara hurbildu eta modu natural batean eramaten dela ikustean, lehen esan dizudan be-

zala. Gauza batzuk lotzea izan da, eta kito.

Horrek ez du esan nahi Oiartzunen gauzak errazak direnik. Lan mundua, orokorrean, erdalduna, eta Oiartzunen ere bai. Askotan pentsatzen dugu Oiartzun dena baino gehiago dela. Kale erabilera %58koa da, eta lan munduan sartzen bagara, asko egiten da gaztekeraz. Hor erronka handia dugu.

**Badaude hainbat iniziatiba euskara ahalik eta eremu gehienetara eramateko: Euskara Merkataritzara (1995etik), Euskara Elkartera (2006tik) eta Lanin (2017), adibidez.**

Oiartzungo Udalak eskaintza polita egiten du, zerbitzu horien, Ttur-tturren edo Aize-AEKren bitartez gauza politikak eskaintzen ditu, laguntzen bitartez. Laguntzak ematen dira, eta nahi duenak eskura ditu. Enpresa bakoitzak bere borondatea ere jarri behar du; norberaren egunorokotasunean zaila izaten da euskararen pentsatzea. Baina hobetzen doa, askok ezagutzen baitituzte Oiartzunen dauden zerbitzuak.

**Nola joan da ahobizi eta belarriprest izen ematea?**

Txapak ematen hasi ginenean, 600 bat lagunek emana zuten izena. Aurrekoan baino pixka bat motelagoa izan da, baina azken bi asteetan igo da nabarmen. Orain hala izan da: asteartean 70 izen emate izan ziren. 2018koan 1.700 oiartzuarrek hartu zuten parte ariketan.

Aitzakia dirudi, baina pandemia garai honetan zailagoa da jendearengana joan eta gauzak egitea.

Hitanoari bultzada emango diote ariketa pilotu batekin

### -E.G.

Oiartzun eta Bergarak Hikaldia antolatu dute. Beraiek izango dira hitanoa erabiltzeko esperientzia pilotuan parte hartuko duten bi udalerrriak.

«Euskaraldiko batzorde nazionalari proposatu genion, eta hainbat herritan proba pilotua egiteko esan genuen. Azkenean Bergara eta Oiartzun animatu gara», adierazi du Aitzol Perez de San Romanek. Hika sustatu nahi duenak pegatina txiki bat jarri behar dio txapari. Ez da gaitasunari lotuta egongo: pegatina daramanak ez du denbora guztian hikaz hitz egin behar, baizik eta hikaren aldeko jarrera duela, eta ahal duen guztietan ariko dela.

Bi baldintza izango ditu hita-kia daramanak. Lehenengoa izango da ulermena beti ziurtatzea, eta ulertzen ez duenean hizkera neutrorra pasatzea. Bigarren baldintza, berriz, izango da hitanoak dituen arau sozialak errespetatzea: «Malgutasun bat eskatu diogu pegatina daramanari: ikusten badu beste bat helduagoa dena, eta pegatina badu, nolabait gonbidatuko ninduke hika aritzea. Kasu horretan, arau sozial horiek apurtuko lirateke, baina pegatina ez duen bati hika hasten banaiz eta ez badu ongi hartzen, ez gara hika arituko».

Oso libre da pegatina horren interpretazioa, bakoitzak duen ahalmenaren arabera. Proba hau egin ondoren, Euskaraldia-aren batzorde nazionalak erabakiko du beste herrietarako baliagarria den proba hau, eta beste herrietara eraman ala ez datozen ekitaldietan.

**Lete**  
itzulpenak  
www.lete.net  
administrazioa . publizitatea  
liburuak . enpresa  
Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net

# «Hizkuntza ohiturak banaka baino hobeto astintzen dira taldean»

**EGOITZ ALBIZU PASAIKO EUSKARALDIKO ARDURADUNA**

Aurrekaririk gabeko egoeran heldu da Euskaraldiaren bigarren edizioa, traba guztien gainetik, Pasaia lau barrutiak euskaraz aritzeko guneez bilakatzeko xede irmoz.

## –OLAIA GERENDIAIN

**Gaur hasi da Euskaraldia. Zein emozio dituzu gorputzean?**

Hilabete luzeetan zehar egindako lan baten ateetan gaude, eta bada jendearen bizipenak eza-gutzeko irrika hori. Askotan azpitik egiten den lan horrek kalean isla bat baduela sentitzeko gogo badut.

**2018koarekin alderatuz, zein berrietasun dakartza edizio honetarako?**

Aurtengoan uste dut bi ezberdintasun nagusi daudela: bate-tik, hizkuntza ohiturak banaka baino hobeto astintzen dira taldean, eta hau talde ariketa masi-boa da; ariguneeen kontzeptuak eman digu aukera hori lantzeko. Proposamenaren lehen urtea da, baina balioko du irekitzeko beste bide bat hizkuntza ohiturak aztertuz, euskara zenbat erabiltzen dugun baloratzeko.

Beste aldaketa nagusia, berria ez dena baina denoi eragin digu-na zentzu guztietan COVID-19a da, orokorrean, eragin mugatzaile bat edukit duena, animikoa eta bestelakoa. Gu ez gaude sal-buetsita, eta eragingo du, noski.

**Zer da arigune bat?**

Arigunea, definizioz, euskaraz lasai aritzeko guneez bat da. Hor badira gako batzuk inportanteak direnak. Euskaraz aritzea eta lasai aritzea da gako horietako bat, hau da: nola sortzen dugun espazio bat (fisikoa edo pertsonen artekoa) aurrez adostuta bertara jotzen duen edozeinek, eta bertako kide direnek, euskaraz lasai hitz egin ahal izango dutena besteek ulertzen dutelako, eta bada-goelako borondatea eragiteko eta euskaraz gehiago egiteko.

Ariguneeak kokatzen dira askotariko entitateetan, hau da, ez da zerbait mugatzailea, alderantziz. Guk jo dugu orotarikoak diren entitateengana Pasaian, denek izan zezaten aukera barne gogoeta egin eta Euskaraldian parte hartzeko.



OLAIA GERENDIAIN

**Osasun neurri berriek izango dute eragina espazio horietan.**

Bai, bada zerrenda bat parte hartzeko gogoak erakutsi ditugutena, izena eman dutena, batzuk beranduago iritsi badira ere.



**«Ehunka pertsona gaude Pasaian euskara gehiago egin nahi dugunak»**

**«Abiapuntua nahi dugu izatea giro alai eta, kasuan kasu, mintzaria»**

Topatuko duguna da beraiek arigune bat eskaintzen dutela, baina oraingo formatuan ezingo dutela praktikan eremu bat edukit jendea euskaraz lasai aritzeko, ez bada puntualki etxera eramateko janaria eskatzen dutenekin, baina ez askoz eremu sozialagoa

eta zabalagoa izango litzatekeen modu horretan.

**Aurten ez da jairik izan Pasaian, baina Euskaraldiari suziriz eta musikaz eman zaio hasiera. Zer ospatzeko aldia da?**

Euskaraldian baditugu hamabost egun ez ditugunak bakarrik egin behar, eta egun hauek bihurtu nahi ditugu, ahal den heinean, eta baldintzek eskatzen ditugun neurrian, elkartzeko eta konpartitzeko egunetan.

Ospatu behar duguna da bagaudela ehunka pertsona Pasaian euskara gehiago egin nahi dugunak, eta elkarrekin egun horiek horretarako baliatuko ditugu. Egitarau bat eskaini eta zabalduko dugu egunero egun hauetan zehar, eta abiapuntua nahi dugu izatea giro alai eta, kasuan kasu, mintzaria.

Gaur nahi duguna da herri osoan entzutea hastera doala ariketa masibo hau, orain dela aukera denok parte hartzeko gure hitz eta belarriekin, eta ba-

rruti guztietatik pasako gara ba-koitzean txupinazo bat botaz. Musikaz ere jantzi nahi dugu herria esateko hastera goazela, eta horretarako Euskaraldiak ateratu du Pasaian bereziki herritarrek egindako abesti bat.

**Osasun larrialdiak parte hartzea mugatu du?**

Oraingoz lehenengo edizioan baino pasaitar gutxiagok eman dute izena. Pasa den asteburu honetan txapa banaketarako mahaia jarri ditugu, eta hori ikusi dugu jendeak txapa etxean duenez parte hartuko duela, baina berriro izena eman behar dela agian ez dakite.

Argi dago COVID-19ak eragin handia daukala, iruditzen zait, orokorrean, apalago gaudela denok, eta gure begirada egunero ko hurbilean dugula. Hau guztia zama bat bezala ikusteko arriskua bada, ez duenean zertan hala izan behar. Alderantziz, Euskaraldia inguru hurbiletik has daitekeen zerbait baita, in-

guru zabaletaraino iritsiz. Agian, zifra ofizialak eta benetan parte hartuko duen jendearena ez dira guztiz parekoak.

**Zer da zuretzako Euskaraldia?**

Hamabost eguneko ariketak, hutesan, ez du bizitza guztirako aldaketa bat ekartzen, baina bidea irekitzen du. Ez da automatikoa, baizik eta eskaintza bat, proba bat ikusteko ea egun horietan egindako aldaketek eman dituzten zerbait positiboa luzatu ahal izateko, eta hori, beraz, izateko hilabete, urte, edo bizitza osoarako zerbait.

Nik egun gutxi batzuetan egin dezakedan horrekin bakarrik frogatzen dut posible dela gainontzeko urteko egunetan ere egitea. Batzuetan bizi gara gauza batzuk ezintasuna balira bezala, eta konturatzeko garenean ez bakarrik posible dela, baizik eta gauza positibo asko ekartzen dituela bueltan, horrek ematen dizu indar bat eragiteko gainontzeko egunetan ere.

# 1.409

## IZEN EMATEAK PASAIAN, ASTEARTEAN

2018ko edizioan 2.000 lagunetik gora parte hartu zuten.

### Entitateak

Txirrita AEK euskaltea  
Albaola Itsas Kultur Faktoria  
Aleka Antzerki Taldea  
Amura taberna  
Antxeta Elkartea  
Antxo AF  
Antxoko Topagunea  
Antxotarrak Lasterkari Taldea  
Askalitz  
AZTI Institutua  
Badia Plazan KE Badia Eskola  
Balda harategia  
Begihaundi taberna  
Bixi Bixi Elkartea  
Blas de Lezo Pasaia Itsas  
Arrantza BHI  
Boveda Gazte Elkartea  
Caixabank  
Coexpe  
Comercial Diesel

Dantzatu  
Donimag Argazkiak  
Ekaitza Gazte Taldea  
Elosegi Zeramikak  
Emaus Gizarte Fundazioa  
Ethnia estilistak  
I. Garcia A. Jimenez farmazia  
Harremantxo Talde Feminista  
Illunbe Dantza Taldea  
IPI Karmengo Ama  
Irse-ebi  
Isasa paperdenda  
Itsas Mendi Elkartea  
Izadi taberna  
Kale Hezitzaileak  
Kantauri Ludiko Elkartea  
Kotazero urpekaritza zerbitzuak  
Kutxabank  
La Anunciata Ikastetxea  
Laboral Kutxa  
LaCerve Trintxerpe  
Lamiak Dantza Taldea  
Umaran laneko jantzi eta segurtasun materiala  
Maite taberna  
Mater Ontzi Museoa  
Molde  
Moon estilistak  
Muguruza Ardoak.  
Ostare Sailing  
Pasai Donibane Koxtape AE

Pasaia Musikal  
Pasaia-Lezo Lizeoa  
Pasaia EH Bildu  
Pasaia Irakurle Kluba  
Pasaia Oinarriko Lanbide  
Heziketako Udal Institutua  
Pasaia Udal Euskaltea  
Pasaia Udal Haur Eskola.  
Trintxerpeko Lilitegia  
Pasaia Udala  
Patata Tropikala antzerki laborategia  
Piña Kurdin Elkartea  
Rome taberna  
San Pedroko Txistulari Taldea  
Sanpedrotarra Arraun Elkartea  
Sanpedrotarra Futbol Elkartea  
Santamaria arandegia  
SM Itsaso  
Soneso Kirolak  
Trintxer Elkartea  
Trintxer Mendi Taldea  
Trintxerpe Kirol Elkartea  
Trintxerpeko Korkoiburuak  
Txintxua Films  
Ubera Liburutegiaren  
Lagunak  
Urdir liburu denda  
Urtxintxa  
Xantixa KE  
Yoga Pasaia  
Zirika Neska Gazte Taldea

### Egitaraua

**Gaur.** Hasiera ekitaldia. Lau barrutietan musika eta suzi-riak.

**Bihar.** 19:00etan, Antxoko Kultur Etxean, Nerea Arriolaren Txor, txor bakarrizketa.

**Etzi.** 19:00etan, San Pedroko Udal Aretoan, bertso saioa Jone Uria eta Julio Soto bertsolariekin. Gai jartzailea: Maitte Berriozabal.

**Hilak 23.** 18:30ean, Antxoko Kultur Etxean, zinema.

**Hilak 24.** 19:00etan, Donibane-ko Juanba Berasategin, *Euskararen zirrikituak* saioa, esperientziak partekatuzko.

**Hilak 25.** 19:00etan, San Pedroko Udal Aretoan, Harkaitz Canoren eta Uxue Alberdiren solasaldia. Eider Perezek gidatua: *Lerro artean*.

**Hilak 26.** Mural margoketa Donibanen.

**Hilak 27.** 20:00etan, Trintxerpeko alkateordetzan, zinema.

**Hilak 28.** 19:00etan, Trintxerpeko alkateordetzan, Nerea Arriolaren Txor, txor bakarrizketa umoretsua.

**Hilak 29.** 18:00etan, Donibane-ko Juanba Berasategin, Oihana Bartra eta Sustrai Colina- ren bertso saioa. Gai jartzailea: Imanol Artola Felix.

**Hilak 30.** 17:15ean (Trintxerpeko alkateordetzan) eta 19:00etan (San Pedroko Udal Aretoan) *Euskararen zirrikituak* saioak.

**Abenduak 1.** 19:00etan, Donibane-ko Juanba Berasategin, *Pasai Donibane-ko gazteak euskararen eszenatokian: era-bileraren auzia* ikerketaren aurkezpena.

**Abenduak 2.** 20:00etan, Antxoko Ibaiondo gunean, musika ekitaldia Musika Eskolaren eskutik. Euskaraldirako Pasaia-ko gazteek sortutako kantua aurkeztuko dute.

**Abenduak 3.** 19:00etan, San Pedroko Udal Aretoan, emakumeentzako tailerra: *Euskara eta feminismoa: iragana eta etorkizuna aletzen*. Edurne Epelde eta Ansa ahizpa kantari-ek gidatutako saioa izango da.

**Abenduak 4.** Amaiera ekitaldia egun guztian zehar.



# Guztiok batera, euskaraz aurrera!



[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus)



GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

EUSKARALDIA

EUSKARAK  
365  
EGUN

# PASAIA

## EUSKARALDIA

# 15 EGUN, 15 EKINTZA

<p><b>AZ 23</b></p> <p><b>ZINEMA PROIEKZIOA</b> Txintxua Films-en eskutik <b>18:30</b> Antxoko Kultur Etxean</p>	<p><b>AZ 24</b></p> <p><b>EUSKARAREN ZIRRIKITUAK</b> Euskaraldian izandako esperientziak partekatzeko saioak <b>19:00</b> Donibaneko kulturgunean</p>	<p><b>AZ 25</b></p> <p><b>LERRO ARTEAN</b> Euskara eta literatura sorkuntzari buruzko solasaldia Harkaitz Cano eta Uxue Alberdirekin. Eider Perezek gidatuta. <b>19:00</b> San Pedroko Udal Aretoan</p>	<p><b>AZ 26</b></p> <p><b>MURAL MARGOKETA</b> Donibanen</p>	<p><b>AZ 27</b></p> <p><b>ZINEMA PROIEKZIOA</b> Txintxua Films-en eskutik <b>20:00</b> Trintxerpeko alkateordetzan</p>	<p><b>AZ 28</b></p> <p><b>TXOR TXOR BAKARRIZKETA UMORETSUA</b> Xabi Artieda <b>19:00</b> Trintxerpeko alkateordetzan</p>	<p><b>AZ 22</b></p> <p><b>... NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS. BERTSO SAIOA</b> Jones Uria eta Julio Soto Gj: Maite Berriozabal <b>19:00</b> San Pedroko Udal Aretoan</p>
<p><b>AZ 30</b></p> <p><b>EUSKARAREN ZIRRIKITUAK</b> Euskaraldian izandako esperientziak partekatzeko saioak <b>17:15</b> Trintxerpeko alkateordetzan <b>19:00</b> San Pedroko Udal aretoan</p>	<p><b>AB 1</b></p> <p><b>IKERKETAREN AURKEZPENA</b> 'Pasai Donibaneko gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia' <b>19:00</b> Donibaneko Juanba Berasategi aretoan</p>	<p><b>AB 2</b></p> <p><b>MUSIKA EKITALDIA</b> Euskaraldirako Pasaiako gazteek sortutako kantuaren aurkezpena <b>Internet bidez</b> Pasaiako Euskaraldiaren sareetan</p>	<p><b>AB 3</b></p> <p><b>EUSKARA ETA FEMINISMOA</b> Emakumeentzako tailerra. Edurne eta Ansa Epelde ahizpa kantariak gidatuko dute saioa <b>19:00</b> San Pedroko Udal Aretoan</p>	<p><b>AB 4</b></p> <p><b>AMAIERA EKITALDIA</b> <b>19:00</b> Donibaneko Juanba Berasategi aretoan</p>	<p><b>AZ 29</b></p> <p><b>... NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS. BERTSO SAIOA</b> Oihana Bartra eta Sustrai Colina Gj: Imanol Artola 'Felix' <b>18:00</b> Donibaneko Juanba Berasategi aretoan</p>	
<p><b>COVID 19AK ERAGINDAKO SEGURTASUN NEURRIAK GOGORTZEN BADIRA, EKINTZAK ONLINE FORMATUAN EGINGO DIRA.</b></p> <p><b>AFORO MUGAK DIRELA ETA IZEN EMATEA DERRIGORREZKO DA</b></p> <p><b>HEMEN</b></p>  <p><a href="https://labur.eus/52Vys">https://labur.eus/52Vys</a></p>						

# pasaia.euskaraldia.eus

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

